## GURASOENDAKO EDO LEGEZKO TUTOREENDAKO INFORMAZIO OROKORRA

*2023/9 urtarrilarenn 25eko ebazpenean aurreikusitako prozedura 2022/2023 ikasturtean zentroan matrikulatuta ez dauden haurrei aplikatuko zaie. Plaza eskatu dezakete:*
*2021, 2022an jaiotako haurren gurasoek edo legezko tutoreek eta 2023ko maiatzaren 15ra arte jaiotakoek, biak barne (2023-2024 ikasturtea hasi baino 16 aste lehenago).*
*Harrera edo adopzio prozesuan dauden haurren kasuan,beharrezkoa den egiaztagiria sartu beharko da.*

## ESKABIDEAK

**ESKAERAK JASOTZEKO ETA AURKEZTEKO EPEAK: 2023ko martxoaren 6tik 17ra bitarte. (biak barne)**

- **ESKAEREN DESKARGA:** Berriobeitiko Udalaren web-gunetik http://www.berrioplano.es
- **ESKAEREN AURKEZPENA:** Eskabideak telematikoki entregatuko dira, eta, salbuespen gisa, aurrez aurre.
  - Online: Berriobeitiko Udalaren webgunearen bidez http://www.berrioplano.es
  - Aurrez aurrekoa: Berriobeitiko Udaletxean, 9: 00etatik 14: 00etara eta,
    II Artigunean astearte eta asteazken 9:00etatik 14:00etara

**AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK:**

a) Jaio gabeko haurren kasuan, erditzearen data probablea egiaztatzen duen mediku-ziurtagiria eta, adopzio- edo harrera-prozesuan dauden haurren kasuan, jaiotza-data egiaztatzen duen dagokion dokumentua.

b) NANaren, pasaportearen, atzerritarrentzako bizileku-txartelaren edo amaren, aitaren edo legezko ordezkarien nortasun-agiri baliokidearen fotokopia.

c) Aitaren eta amaren edo legezko ordezkarien lan-egoera eta/edo egoera akademikoa justifikatzeko dokumentazioa
- Lan bizitzaren ziurtagiria, non aurreinskripzio epea bukatzen den egunetik, 30 egun lehenago Gizarte Segurantzan edo dagokion Mutualitatean altan egon behar du.
- Lortzeko aukerak: - Telefonoz 901 50 20 50 - Interneten: www.segsocial.es
- Norberaren konturako langileen lan-egoera egiaztatzeko,dagokion mutualitate orokorrean edo Gizarte Segurantzaren erregimenean eta ekonomia-jardueren gaineko zergan aurreinskripzioa amaitu aurreko 30 egunetan alta eman dutela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira.
- Eskaerak aurkezteko unean ikasten arituz gero, matrikularen ikasturteko egutegiaren eta ordutegiaren frogagiria aurkeztuko dira.
- Hiru urte baino gutxiagoko seme-alabak zaintzeko eszedentzian egonez gero,eszedentziaren jakinarazpena aurkeztu beharko da. Lan-egoera aktibotzat jotzeko,idatziz zehaztu beharko da lanean hasteko aurreikusitako data ez dela 2023ko urriaren 15a baino geroagokoa izango.
- Langabezian egonez gero, enplegu eskatzailearen alta agiria.
- Hala badagokio, familia-unitateko kideen artean ezintasun iraunkorreko edo baliaezintasun handiko pentsioa aitortuta duen Gizarte Segurantzako pentsioduna dela egiaztatzen duen dokumentazioa.

d) Familiaren osaera frogatzeko agiriak:
- Familia-liburuaren fotokopia edo, halakorik ez badago, antzeko agiri ofiziala osorik.
- Hala badagokio, familia-unitateko edozein kideren % 33ko edo gehiagoko desgaitasun fisiko, psikiko edo sentsoriala egiaztatzen duen ziurtagiria.
- Familia ugariaren titulua.
- Haurra harrera-egoeran dagoela edo adoptatua dela frogatzen duen agiria.
- Bereizketa edo dibortzio kasuetan, epai betearazlea edo legalki egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko da.
- Guraso bakarreko familia-titulua.

e) Errenta mailaren frogagiriak.
Familia-unitateko kide konputagarri guztien azken errenta-aitorpenaren fotokopia. Aitorpena egin beharrik ez badute, beste errenta edo diru-sarrera batzuk jaso izana justifikatzen duen dokumentazio ofiziala aurkeztu beharko da, edo, azken buruan, horien zinpeko aitorpena eta/edo zentroaren titularra den toki-erakundeak beharrezkotzat jotzen dituen dokumentuak, 2021. urteko familia-sarrerak zehazteko, edo 2022. urtekoak, onarpen-prozesua 2023ko ekainaren 30a baino geroagokoa bada.

f) Aitaren, amaren edo legezko tutoreen lantokia Berriobeitin dagoela frogatzen duen dokumentua.
- Haurrarentzako ikastokia eskatzen den Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeko zuzendaritzaren ziurtagiria, eskatzaileak bertan lan egiten duela adierazten duena.
- Zaintza eta jagoletza betetzen duen gurasoaren edo legezko ordezkariaren lantokia egiaztatzen duen dokumentazioa.
- Etxebizitzaz aldatzean, etxebizitza berria ikasturtea hasi baino lehenagorako entregatu edo kontratatu dela egiaztatzen duen agiria baloratuko da. Kasu horretan, gaur egungo bizilekua zein den adieraziko da jakinarazpenetarako, eta bizileku berria, berriz, baremazioa egiteko.

g) Sarbide zuzenerako baldintza berezien gaineko agiriak.
Desgaitasun-kalifikazioaren ziurtagiria edo haurraren mendetasun handiko egoeraren aitorpenaren egiaztagiria (III. gradua) eta/edo hezkuntza-laguntzako premia espezifikoak ekar ditzaketen ezaugarriak deskribatzen dituen txosten profesionala.

h) Beste edozein egoera berezi baloratzeko frogagiriak. Medikuaren, psikologoaren, gizarte langilearen edo zerbitzu espezializatu ofizialen txostena aurkeztu beharko da inguruabar hori frogatzeko.

## ZERRENDAK ARGITARATZEA

**BEHIN-BEHINEKO ZERRENDEN ARGITARATZEA: 2023ko maiatzaren 9an.**
Onartuen zerrenda eta itxaron zerrenda 012an, Berriobeitiko Udalaren webgunean, udaletxeko oholean eta Artika eta Berriogoitiko haur-eskoletako iragarki-taulan argitaratuko dira.

**ERREKLAMAZIOEN AURKEZPENA: 2023ko maiatzaren 9tik 12ra bitarte.**
Erreklamazioak aurkeztu ahal izango dira Berriobeitiko Udalean, sortutako instantzia bidez, Hautaketa Batzordeari zuzenduta, behin-behineko zerrendetan jasotako puntuazioa berrikusteko eskatzen duten gogoetak alegatuz. **Inola ere ezingo dira zuzendu hautaketa-baremoan puntuazioa dakarten dokumentuak.**

**BEHIN-BETIKO ZERRENDAK ARGITARATZEA: 2023ko maiatzaren 18an.**
Behin betiko zerrendak eta bete gabeko plazak, 012an, Berriobeitiko Udaletxearen webgunean eta Artika zein Berriogoitiko Haur Eskoletako iragarki-taulan argitaratuko dira.

## MATRIKULA

**MATRIKULAREN GAUZATZEA: 2023ko maiatzaren 18tik 25era bitarte.**

Lekua: Artika eta Berriogoitiko Haur Eskoletan.

Ordutegia: hitzordua hartuta.

Ekarri beharreko dokumentazioa:

- Haurraren Gizarte Segurantzako txartelaren fotokopia
- 2022ko Errenta Aitorpena (ekartzeko azken eguna 2023ko ekainaren 30a).
- Banku-erakundearen kontu-zenbakiaren fotokopia, IBAN barne, bertan helbideratuko baitira ordainagiriak, titularra eta zenbakia berariaz adierazita.
- Matrikulazio-kuota ES27 2100 5184 5302 0023 0934 kontuan 100 euro ordaindu izanaren egiaztagiria
- Hala badagokio, haurra behar bezala artatzeko beharrezkoa den osasun-informazioa.

Matrikula formalizatzeko, beharrezkoa da haurrak ikasturtea hasteko egunean (2023ko irailaren 4an) 16 aste beteta izatea.

## DATUEN EGIAZTAKETA ETA BEHAKETA

- Ezarritako epean egiten ez diren matrikulen ondorioz, beste esleipen bat eginen da itxarote-zerrendako ordenari jarraituz.
- Eskaturiko egiaztagiriak aurkeztu ezean, zero puntu eskuratuko dira dagokion baremo-atalean, datatik at ezingo da dokumentazioa gehitu. Hala ere lan bizitzaren ziurtagiria aurre-inskripzio epean egina baldin badago, 2023ko martxoaren 22a arte aurkezteko epea irekita egonen da.
- Aurkeztutako matrikularen datuetan edo agirietan gezurrik adierazi dela frogatuz gero, dagokion puntuazioa aldatuko da eta, kasua bada, emandako plaza galtzea ekarriko du berekin.
- Hautapen Batzordeak zilegi izanen du edozein unetan ziurtagiri gehiago eskatzea hautapen baremoan puntuazioa duten egoerei buruz.
- Berriobeitiko Udala bera arduratuko da erroldak egiaztatzeaz. Ez da beharrezkoa familiek errolda-ziurtagiria aurkeztea. Haurra, gurasoetako bat edo legezko ordezkarietako bat gutxienez, 2023ko urtarrilaren 1a baino lehen Zendean erroldatuta daudela jasoko da.
- Aukerak markatzerakoan kontutan hartuko da:
  - Lehenengo aukeran ez badago tokirik, bigarren aukera kontutan hartuko da. Bi aukerak markatutak badaude.
  - Lehenengo aukera errefusatzen bada, plaza galduko da.
  - Bigarren aukera errefusatzen bada, lehenengo aukeran tokia egon arte barruko itxaron zerrendan mantenduko da.
  - Aukera bakar bat aukeratzen bada, bigarrena ez da kontuan hartuko.
- ESKABIDEAREKIN batera doan GURASOENTZAKO EDO LEGEZKO ORDEZKARIENTZAKO INFORMAZIOA dokumentuan akatsen bat egonez gero, 0 eta 3 urte bitarteko haurrak onartzeko prozedura arautzen duen urtarrilaren 25eko 2023/9 Ebazpenean xedatutakoa nagusituko da.

## OHIZ KANPOKO ONARPEN PROZEDURA

2023ko ekainaren 1etik aurrera, ohiko epean egin ez duten familiek, eskabideak aurkezteko aukera izango dute. Betiere, eskabide berri hauek 0 puntuazioa izango dute, eta dagoen itxaron zerrenda atzean kokatuko dira, eskabide dataren arabera.

## TARIFAK

Tarifak familia unitatearen kideen Per Kapita Errentaren araberakoa izango dira. 2023/2024 ikasturtean ordaindu beharreko tarifak ondorengo taulan agertzen direnak izango dira:

Familia orokorren kasuan:

| Per Kapita Errentaren Atalak | | Kuota | | |
|---|---|---|---|---|
| **etik** | **era** | **Eskolatzea** | **Jantokia** | **Orotara** |
| 15.000 | baino gehiago | 163 | 95 | 258 |
| 12.400,01 | 15.000 | 134 | 95 | 229 |
| 10.700,01 | 12.400 | 98 | 95 | 193 |
| 9.300,01 | 10.700 | 69 | 95 | 164 |
| 7.980,01 | 9.300 | 0 | 84 | 84 |
| 6.650,01 | 7.980 | 0 | 84 | 84 |
| 5.500,01 | 6.650 | 0 | 66 | 66 |
| 4.500,01 | 5.500 | 0 | 58 | 58 |
| 3.350,01 | 4500 | 0 | 56 | 56 |
| 3500 | berdin edo gutxiago | 0 | 52 | 52 |

Guraso bakarreko familien kasuan edo guraso bakarreko egoeran:

| Per Kapita Errentaren Atalak | | Kuota | | |
|---|---|---|---|---|
| **etik** | **era** | **Eskolatzea** | **Jantokia** | **Orotara** |
| 15.000 | baino gehiago | 0 | 84 | 84 |
| 12.400,01 | 15.000 | 0 | 84 | 84 |
| 10.700,01 | 12.400 | 0 | 84 | 84 |
| 9.300,01 | 10.700 | 0 | 84 | 84 |
| 7.980,01 | 9.300 | 0 | 66 | 66 |
| 6.650,01 | 7.980 | 0 | 66 | 66 |
| 5.500,01 | 6.650 | 0 | 52 | 52 |
| 4.500,01 | 5.500 | 0 | 42 | 42 |
| 3.350,01 | 4500 | 0 | 32 | 32 |
| 3500 | berdin edo gutxiago | 0 | 25 | 25 |

## BAREMOA

A) Gurasoen edo legezko tutoreen lan-egoera eta/edo egoera akademikoa: 20 puntu gehienez ere.

a) Familia orokorrak
Guraso berean bi egoera posible gertatzen badira, horietako bat bakarrik hartuko da kontuan, puntuaziorik handiena duena.

- Lanaldi osoan edo partzialean lan egiten duen guraso edo legezko tutore bakoitzeko, edo behar bezala justifikatutako lehentasunezko dedikazioa eskatzen duten ikasketa arautuak egiten ari den guraso edo legezko tutore bakoitzeko, edo ezintasun iraunkor absolutuko edo baliaezintasun handiko egoera aitortuan dagoen guraso edo tutore bakoitzeko, 10 puntu.
- Lana bilatzen ari den guraso edo legezko tutore bakoitzeko, 5 puntu.

b) Guraso bakarreko familiak edo guraso bakarreko egoeran

- Lanaldi osoan edo partzialean lan egiten duen gurasoa, edo behar bezala justifikatutako lehentasunezko dedikazioa eskatzen duten ikasketa arautuak egiten ari dena, edo ezintasun iraunkor absolutuko edo baliaezintasun handiko egoera aitortuan dagoena, 20 puntu.
- Lana bilatzeko egoeran dagoen gurasoa, 15 puntu.

c) Zaintza eta jagoletza esklusiboa duen gurasoa, guraso bakarreko familia izan gabe edo guraso bakarreko egoeran.

- Lanaldi osoan edo partzialean lan egiten duen gurasoa, edo behar bezala justifikatutako lehentasunezko dedikazioa eskatzen duten ikasketa arautuak egiten ari dena, edo ezintasun iraunkor absolutuko edo baliaezintasun handiko egoera aitortuan dagoena, 20 puntu.
- Lana bilatzeko egoeran dagoen gurasoa, 15 puntu.

B) Familia unitatea, gehieneko puntuazio metagarria: 15 puntu

Modalitateak:

- Deialdi berean bi seme-alabarentzat edo gehiagorentzat eskatzen bada (ikastokiaren erreserba sartzen da eta jaio gabeendako eskaerak barne) 1: 15 puntu.
- 6 urtetik beherako bi seme-alaba edo gehiago dituzten familiak2: puntu 1 seme-alaba bakoitzeko. Aurrez izena emateko epea amaitu arte jaiotakoak bakarrik zenbatuko dira.
- Guraso bakarreko familiak edo guraso bakarreko egoeran: 5 puntu.

- Familia ugariak: 5 puntu.
- Familia-unitateko kideren baten desgaitasun fisiko, psikiko edo sentsoriala % 33koa edo handiagoa duen egoera aitortua: 4 puntu.

C) Familia unitatearen urteko errenta mailak[3]: 15 puntu gehienez ere.

| Errenta tarteak | | Puntuazioa |
|---|---|---|
| etik | era | |
| 15.000 | baino gehiago | 1,5 |
| 12.400,01 | 15.000 | 3 |
| 10.700,01 | 12.400 | 4,5 |
| 9.300,01 | 10.700 | 6 |
| 7.980,01 | 9.300 | 7,5 |
| 6.650,01 | 7.980 | 9 |
| 5.500,01 | 6.650 | 10,5 |
| 4.500,01 | 5.500 | 12 |
| 3.350,01 | 4.500 | 13,5 |
| 3500 | berdin edo gutxiago | 15 |

D) Eraginpeko eremu geografikoa: 20 puntu gehienez ere.

- 2023ko urtarrilaren 1a baino lehen Berriobeitiko Zendean erroldatuta egoteagatik haurra eta, gutxienez, gurasoetako bat edo legezko ordezkariak: 20 puntu
- Berriobeitiko Zendean gurasoetako batek edo legezko ordezkari batek lan egiteagatik: 8 puntu
- Berriobeitiko Zendeako Haur Eskoletako batean gurasoetako batek edo legezko ordezkari batek lan egiteagatik: 5 puntu

E) Beste irizpide batzuk. Hautapen Batzordeak beste behar larri batzuk, pertsonalak, familiakoak edo sozialak, behar bezala frogatuak eta aurreko ataletan bildu gabeak, hartzen ahal ditu kontuan:10 puntu, gehienez ere.

F) Puntuazioko berdinketa kasuak ebaztea. Baremoa aplikatuta, adin talde bakoitzeko azken ikastokia eskaintzean berdinketa gertatuz gero, irizpide hauek aplikatuko dira, bata bestearen ondoren:

1. B. atalean (Familia-unitatea) lortutako puntuaziorik handiena.
2. C. atalean (Errenta mailak atalean) lortutako puntuazio handiena
3. D. atalean (Eragin-eremu geografikoa) lortutako puntuaziorik handiena
4. A. atalean (Lan egoera eta/ edo egoera akademikoa) lortutako puntuaziorik handiena.
5. E. atalean (Beste irizpide batzuk) lortutako puntuazio handiena
6. Zozketa publikoa. Hezkuntza kontseilariaren maiatzaren 4ko 2021/46 Foru Aginduaren 13.6 artikuluan aipatzen den ikasleak onartzeko eskumena duen Hezkuntza Saileko organoak 2023ko martxoaren 3an egindako zozketaren emaitza aplikatuko da.